



Joan Mari Torrealdai

ETB: Buztinezko zangoak

Aurten ere ETBk izan du protagonismorik, eta ez beti onerako. Gertakariak gogoratu besterik ez dago. Ez dut uste gertatu den guztia erabat beltza denik, baina bai ETBren garapenean badela puntu beltzik, hutsunerik, bide okerrik eta joerazko arriskurik; gehiegi, egon ere. Beharrezkoa da egoera hau agerian jartzea eta —behar delarik— salatzea. Are larriagoa da betekizun hau ETBren eztabaida, politiko profesionalen eskuetara lerratu denean, instantzia kultural eta linguistikoen kaltetan.

Hona hain zuzen seinalatu nahi dudana aurtengo gertakari bat: euskaldungoarekiko hurbiltasuna galduz doa euskal telebista, joku politikoaren saltsan murgildurik dago. Hitz batean, ETBren eitea eta etorkizuna interes politikoaren arabera moldatzen da. Zeregin gutxi dute hor kultur eragileek edota hizkuntz agenteek, gaiztoarena egitea besterik, hots, kritika, protesta. Esan nahi dudana da, euskaldungoak «berea» bezala hartzen zuena, oker ala zuzen, jadanik gaur urruntasun handiagoz ikusten duela, «beste batzuen» eskuetara iragan izan bailitzan. Atxekimendurik eza, etsipena, deslilurapena, desmitifikazioa, erlatibizatzea, sortu du honek euskaldungoan. Esan bezala, sendimendu honek badu oinarririk: izan ere, kultur eta hizkuntz proiektu garbitzat jotzen zen ETB, iaztik hona askoz ere politikoago eta komertzialago agertu da.

Harritzekoa al da susmo txarrez beterik egotea ETBren ingurua aldaketen atzekaldean inprobisazio, sekretu, interes politiko-ideologiko-komertzial gehiegi somatzen denean? Arduradunen hitzak eta deklarazioak ez dira falta; eta, halere, ez dugu informaziorik. Arazo puntualak ezagut ditzakegu, baina ez proiektu orokorra. Zergatik ez da esaten argi eta garbi ETB euskaldunak izango duela lehentasuna, presupostuetan, programazioan, garapenean? Zergatik ez da esaten argi eta garbi ETB-2 hori euskarazkoaren osagarri izango dela, ez dela izango sekula ETB euskaldunaren lehiakide TVErena eta telebista pribatuena baizik? Zergatik ez da esaten argi eta garbi ETB euskalduna izango dela egiaz eta benetan komertzionala eta erdarazkoa osagarria izango dela, haurrentzat zein helduentzat?

Beste hitz batez esanda, telebista-eredua argitu eta definitu behar da, aurrera orduko. Indefinizio hori kaltetarako bestetarako ez da. Gaitz erdi, halere, proiekturik eta plangintzarik eza adieraziko ez balu, edo —okerrago dena— ETB euskaldunaren gesaltzea.

Ez da harritzekoa, kondizio hauetan, ETB euskalduna arriskutan ikustea. Eta hori, ez bakarrik buruzagitza berriak hartu dituen neurrietako batzu negatibotzat jotzen ditudalako, baizik eta ETBri oinarri sendorik ez zaiolako jartzen, luzarora begira. ETB euskalduna kondenatzea da borroka informatiboari eta telebista pribatuaren lekua jateari lehentasuna ematea. ETB-1 indartzeak, besterik esaten —eta sinesten— bada ere, ETB euskalduna bazterreko eta testimonial bihurtzea dakar, telebistaren legitimazioa hizkuntz normalizazioan bilatzen ez bada. Horixe lekua izango duela gero ere euskarazko telebistak! hobe esan, ez du lekua izango, txokoa baizik.

Bi kondizio —gutxienez bi— beharko lirateke ETB euskaldunaren etorkizuna segurtatzeko: barne-produkzio indartsua eta borondate politiko erabakiorra.

Barne-ekoizpenean datza ETBren eta edozein telebistaren arragoa. Miramon gabe lurreta ez da justifikatzen ahal. Barne-produkzioa indartzen ez bada ETBk ez du zentzurik, multinazionalen pantaila bilakatuko bait da, eta kultura standartizatu guztien transmisore antinazional. Baina gurean, barne-produkzioa aipatzen denerako, dena da aitzaki-maitzaki arduradunen ezpainetan: ez omen dago jenderik, ez omen dago presuposturik... Eta noski, ETBk merkera jotzen du. Merkera jotzen du, bai, ez bakarrik diru-arazoan: kalitatean eta edukinean ere bai. Zaborreria gehiegi dago gaurko emankizunetan. Zenbat betelan! Horrek bai ez duela telebista bat justifikatzen! Eta geure buruari iruzur egitea da, kondizio hauetan, programak errepikatzean oinarritzea euskararen erabilpen-gehiketa. Kalitateak salbatu beharko du ETB ere, ez ordu-kopuruak. Ala ez?

Buztinezko zangoak ditu ETBk, eta ez bakarrik programakuntzaren eta azpiegituraren eskasiagatik. Telebista euskaldun batek aginte politikoaren erabaki irmoaren garrantia behar du. Zenbaterainokoa da, gaur eta hemen, gure agintarien erabakia ganorazko telebista bat egiteko? Badirudi aginte abertzale batek gutxienez egin beharko lukeena zera litzatekeela, alegia, euskarazko telebista iraunkor baten oinarriak sendotu, koituntura politikoaren pentzura utzi gabe. Hori egin ordez, beste hau digute arduradunek: PSOEek agintea hartzen badu, elebidundu egingo duela ETB. ●

“Telebista euskaldun batek aginte politikoaren erabaki irmoaren garrantia behar du.”